



201. zenbakia

· AZAROA 2020 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi,
Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia,
Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken
parte hartzen duzuenak, banatzaileak,
etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan,
Lurra, Joxe Jabier eta Ana Galar

KOORDINATZAILEAK

Aitziber Lizeaga, Garazi
Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Belaunaldiak.
Egilea: Alfredo García-Falces

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira irailaren 6an bidalia

Olerkia



Ana Galar Ariztegi

*“ Poesiaren bide espazial infinitoak,
irrazionaltasunaren indarririk baxuenak,
desfile erritmo maiztasuna betikotasunaz,
argiak materian sortzen duen itzal
ingeradatsuan hitzalduta. ”*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Leontzio Uharte Alsua, Igoa

“Himalayan, Afrikan, Turkian, leku frankotan ibili naiz eta hemen oso ongi bizi gara”

Leontzio Uharte Alsua, Karakoetxeko semea, Pulunpe banatzailea dugu Igoan. Ez hori bakarrik, herriko alkatea 16 urtez izan ondoren, Kirol Batzordean laguntzen du. Gainera, akordeoilaria ere bada, eta ilobari laguntzen dio aziendarekin. Pandemia egoerak erritmoa lasaitzera derrigortu du. Hala ere, alde ona ere ikusten dio.

• OSTATUA HARTU BERRI DUTE IGOAN, EZTA?

Bai, orain ireki behar zuten. Martxotik hasita gaude ostaturik gabe. Aurrekoak Gerendiainera, Ultzamara, joan ziren, eta izan dira ikusten ibili direnak, bat baino gehiago, baina uste dut ez zela inor ausartzen hartzera, zegoen egoerarekin ...

• ETA ZU ZER MODUZ DARAMAZU EGOERA? BIDAIAZEA GUSTATZEN BAITZAIZU...

Beno, ez nuen aurten asmo askorik, urtero bidaiatzen dut, baina pasa den urtekoa nahikoa luzea izan zen, hiru hilabetez egon nintzen Txilen eta Bolivian. Han denetarik bizi izan genuen, egoera oso nahasita baitago Hego Amerikan. Jendea oso haserre dago bizi kondizioekin.

• ETA, BIDAIAZEA FALTAN BOTATZEN DUZU?

Bai, bai. Orain Pirineotan egon naiz. Gustatzen zait, bai, jende berria ezagutzea, hango egoerak ezagutzea, hango kultura, hango jendea ... batez ere, hori da, hango bizimodua nola den ezagutzea. Himalayan, Afrikan, Turkian, leku frankotan ibili naiz, eta hemen oso ongi bizi gara, dugin lasaitasuna eta askatasuna inon ez dela uste dut, toki batzuetan gauetan dena moztzen dute eta ezin da atera. Beno, orain horrela gabilza ...

• OHITURAK ALDATUKO DITUGULA USTE DUZU?

Zerbait baietz uste dut, ostalaritzako neurriekin ... Nire gazte garaietan 19:00etan irekitzen zuten eta gaueko 23:00etan itxi, eta horretara

eginak ginen eta ongi pasatzen genuen. Egunez egin beharko dugu gauetan egiten genuena, ez da txarra hori, gero hurrengo egunean lo egin beharrean beste aukera bat duzu beste gauza bat egiteko.

• IGOAN BA AL DIRA GAZTEAK?

20-35 urte tarte horretan badago koadrilatxo bat. Etxe berri bat egin dute, gero badago beste bikote bat etxe baten konponketetan, eta badira hiruzpalau bikote orain hemen herrian gelditu behar direnak, badugu esperantza pixka bat.

• KONTZEJUAN IBILITAKOA ZARA, EZTA?

Bai, 16 urtez izan nintzen kontzejuan alkate. Orain udalean nago, kirol batzordean. Mendi martxak eta horrelakoak antolatzen ditut eta gustura egiten dut lan hori. Orain nahiko geldituta dago, dena den. Urtean zehar 10 bat mendi martxa antolatzen ditugu eta aurten oso gutxi.

• ITXIALDIAN, EZ AL ZINEN ATERA AKORDEOIAREKIN LEIHORA?

(Barre algarra). Etxean aritzen naiz. Bideoak bidaltzen dizkidate, pieza berriei, eta hor ibiltzen naiz ikasten, piezak ateratzen, denbora pasa.

• AFIZIOAK EZ ZAIZKIZU FALTA, LEONTZIO.

Ez naiz etxean geldirik egotekoa. Aziendak ere gustatzen zaizkit, ilobak badiu behiak eta ardiak, hemen Igoan, eta asko gustatzen zait han ibiltzea.



▲ Leontzio Uharte Alsua hainbat akordeoi ditu etxean



VI. argazki lehiaketako irabazleak ezagutzen

Ametza Kultur Elkarteak antolatzen duen argazki lehiaketan Alfredo García-Falcesek irabazi du, eta Julen Domeka Renedo bigarren gelditu da

Pandemia egoera dela eta, lehiaketa, hilabete batzuk atzeratu da. Hala ere Ametzak, bertan behera utzi baino, nahiago izan zuen VI. edizio hau ere aurrera ateratzea. Gauza bat eta beste, aldi honetan ez da parte hartzea espero bezain zabala izan. Argazkiak dena den, izugarri politak izan dira eta gustu onez jaso ditugu.

Alfredok behin baino gehiagotan parte hartu du lehiaketan, bai eta irabazi ere.

Zergatik gustatzen zaizu argazkilaritza?

Alfredo: Argazkilaritza nire denbora-pasa da. Ez da soilik argazkiak ateratzearena gustatzen zaidana. Paisaia argazkia, animalien argazkiak edo argazkigintza soziala gustatzen bazaizu, etxetik ateratzeko aitzakia ere bada, mendira joateko, kalera ateratzeko. Denbora pasa dibertigarria iruditzen zait.

Paisaiari argazkia egin nahi badiozu, kontuan hartu behar duzu egunero aldatzen dela paisaia. Askotan kamerarekin joaten naiz buelta bat ematera, argazkiren bat egiteko eta batzuetan ez dut kamera zorrotik ere ateratzen, baina mendira joateko aitzakia da.

Nola izan zen argazki irabazlea egiteko prozesua?

Koadrilla elkartu eta lotea egiten laguntzen dugu elkar. Ni argazki kamera etxean utzita joan nintzen eta argazki pila bat ikusten nituen lanean ari ginen bitartean. Osaba eta iloba arteko harreman oso polita iruditu zitzaidan eta kamera bila joatea pentsatu nuen. Badira serie bat halako argazkiz osatua. Dena den espresiboena iruditu zait hau, eta horregatik aukeratu nuen. Gainera txuri eta beltzean ateratzea aukeratu nuen kolore biziak arreta ez hartzeko, beraien begiradan biltzeko ikuslearen arreta guztia. Haien arteko harremana ikusten da ongi, bai eta kontatzen duen istorioa ere, lotearen lana, traktorearena... Argazki honek erakusten du zer den niretzat herrian bizitzea, zergatik alde egin nuen Iruñetik eta nolako harremanak aurkitu ditudan herrian.

Nor dira protagonistak?

Osaba-ilobak dira. Osabak Txato du izena, nik honela ezagutzen dut betidanik, Larraintzarkoa da eta mendian egin du lan beti. Neska iloba du, Lizasoarra, Maialen Maturret. Txatok lotean traktorea jarri izan du beti, Paskualirekin doa bera. Lotean laguntzen diozunaren familiak hamarretakoa jartzen du edo bazkaltzera gonbidatzen zaitu. Modu honetan sortutako harremanak ezin hobeak dira, badute kutsu berezi bat.

Argazkilaritzan afizioa noiztik duzu?

Ni txikia nintzenean nire etxean super 8 bat geneukan. Felix Rodriguez de la Fuenteren garaia zen, eta nik animaliak atera nahi nituen argazkietan. Hortik aurrera beti izan dut lotura argazkiekin.



1. Saria. BELAUNALDIAK. Alfredo García-Falces



Alfredo García-Falces



▼ 2. Saria. NEGURAKO PRESATZEN. *Julen Domeka Renedo*



Dena den argazkilaritza digitalera sartzea kosta egin zitzaidan, hasiera batean ez nuen onartu. Baina nire emazteak kamera bat oparitu zidan eta berriro hasi nintzen buru-belarri. Dena den argazkiak moldatzeko ordenagailua erabiltzen ez naiz oso trebea. Ateratzea gustatzen zait, baina ordenagailuko gauzak ez ditut oraindik oso ongi kontrolatzen.

Zure ustez, zergatik ez da jende gehiago animatzen parte hartzera?

Zailtasun handiak daude aurkezteko. Paperean positibitzea, CDan ematea... oso neketsua da prestatzea. Niri ia denbora pasa zait gauza bat egin eta beste.. Lehiaketak gaur egun beste modu batean antolatzen dira, internet bidez, eta parte hartzea errazagoa da.

Julen ere ez da berria gurean, azkeneko hiru urteetan parte hartu du lehiaketan.

Julen, zerk animatzen zaitu argazki lehiaketa honetan parte hartzera?

Julen: Hemengoa izanik, beti gustatu izan zait Ultzama aldea nire ikuspuntu pertsonaletik erakustea. Bertako paisaiak, jendea eta ohiturak. Niretzat oso barrukoa da hemen egiten ditudan argazkiak. Denek dute esanahia niretzat, guztiek kontatzen dute zerbait, nirekin lotura duen zerbait.

Nola deskribatuko zenuke zure argazkia?

Epaitza hemen urtero egiten den



3. Saria. EPAITZEAN. *Alfredo García-Falces*

▼ *Julen Domeka Renedo*



lana da, azkenean ia etxe guztietan daukagu sutondoa. Horrexegatik pentsatu nuen argazkian. Egurra atzean pilatuta eta aizkora egurraren aurrean ikusteak uste dut primeran deskribatzen duela negurako prestakuntza. Neguak, gurean, nola diren ederki deskribatzen du.

Zenbat aldiz hartu duzu parte argazki lehiaketa honetan? Zein postutan ibili zara?

3 urte daramatzat lehiaketan parte hartzen eta aurten lehendabiziko aldiz bigarren saria eramateko zortea izan dut. Pozik nago eginiko lanarekin eta lortutako emaitzarekin ere bai.

Argazkiak ateratzeko prozesuren bat jarraitzen duzu edo momentuan atera eta kitto?

Prozesu bat jarraitzen dut, baina egia esan, honekin oso erraza izan zen. Ideia ona zela iduritu zitzaidan eta zenbait argazki desberdin atera eta gero, gustukoena aukeratu, ordenagailuarekin zerbait hobetu eta listo.

Argazki lehiaketa honetan parte hartzen jarraitzeko asmoa duzu?

Noski!!

Eskualdeko zuhaitz zaharrak ezagutzeko auzolana egin dute

Urriaren 17an eskualdeko 12 herri ezberdinetako jendea taldeetan banatu eta gure inguruan ditugun zuhaitz zaharrak bisitatzeko **ateraldia** egin zuten. Larraintzarko eskolako Sustraiak ekimenetik antolatu zuten dinamika, Nafarroako Gobernuaren eta Zuhaitz Zaharren Lagunak elkartearen laguntzarekin.

Ekimenaren helburua gure eskualdean ditugun zuhaitz zaharrak ezagutzea eta horien inguruan lanketa egitea zen, Yolanda Mutiloa ekimenaren antolatzaileak Esan Erran irratian azaldu zigunez. Hain zuzen ere, Zuhaitz Zaharren Lagunak elkarteak arbola horiek identifikatzeko prestatuta dituen fitxa didaktikoak **helarazi** zizkien ekimeneko parte hartzaileei: zuhaitzaren kokapena eta ezaugarriak aztertu zituzten **auzolangileek**.

Auzolanean identifikatutako zuhaitzok lantzen ari dira orain Larraintzarko ikastetxeko 5. eta 6. mailako

ikasleak. Jasotako informazioarekin egin ditzaketen ekimen ezberdinak dituzte buruan: "Erakusketa bat egiteko ideia atera zen alde batetik, edo egutegi bat, edo zuhaitzak dauden lekuetara txangoak antolatzea...", zioen Mutiloak. Azken batean, heziketa praktikoa egitea dute asmo, horrelako ekimenekin naturarekin **ez ezik**, inguruarekin eta eskualdearekin ere lotura egiten dela uste dutelako.

Hiztegia

Ateraldia/txangoa: Salida, excursión

Helarazi: Hacer llegar

Auzolan: Trabajo comunal

Ez ezik: No sólo



Zuhaitz zaharrak ▲



**Euskara
errazeko
artikulua**

Hemen da Esan Erraneko 15ERO zozketa!

Berrikuntza betea dator aurtengo Egun Ero magazina, Esan Erran irratiari: zinemari buruzko kolaborazioa, bidaiei atala, nekazaritzari buruzkoa... eta LEHIAKETA-ZOZKETA!! Bi astean behin egiten dugu 15ERO izendatu dugun lehiaketa-zozketa hori. Nola funtzionatuko duen? Bada, ostegunetan Ultzama aldearekin zerikusia duen galdera bat luzatuko diegu entzuleei, eta beraiek bi aste izanen dituzte galdera horren erantzuna audio bidez bidaltzeko 689 03 30 00 telefono zenbakira.

Urriaren 8an bota genuen lehendabiziko galdera: "Noiz atera zen lehenengo Pulunpe aldizkariaren **alea**?". 14 pertsonak bidali zizkiguten beraiei erantzunak, eta zorionak eman beharrean gaude, gehienek asmatu zuten eta! 1992an atera zen lehenengo Pulunpe. Parte-hartzaile guztien artean **zozketa** egin genuen urriaren 22ko irratsaioan, eta hara! Ihabengo

Bizienera joan zen saria, Mikel Lararengana. Zein zen irabazlearendako oparia? Bada, Jauntsarasko Apeztegi berri jatetxean bi lagunendako otordu bikaina! Ez dago gaizki, ezta?

Adi egon zaitezte, beraz, eta animatu hurrengo 15ERO lehiaketa-zozketetan parte hartzera!!

Hiztegia

Berrikuntza: Novedad

Alea: Número

Zozketa: Sorteo



▲ Parte hartzaile guztien artean zozketak egiten ditugu



GERO ARTE

CURSO DE CERAMICA ZERAMIKA IKASTAROA

IMOTZEKO UDALETXEAN · ETXALEKUN

Adultos / Helduak:

Martes / Astearteetan
10:00 - 13:00

Miércoles / Asteazkenetan
17:00 - 20:00

Niños / Haurrak:

Martes / Astearteetan:
17:00 - 18:00



Más información / Informazio gehiago
948 153 040 - 657 313 527
www.tallergeroarte.com



Sagrario Aleman etxalekuarrak Euskaltzaindiko Jagon saila zuzenduko du

Nafarroako alfabetatze eta euskalduntze mugimenduan ezinbesteko erreferentzia den Sagrario Aleman, Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen 2007an. Diruzaina izan da bertan 2012. urtetik orain arte, eta jakin berri dugu hemendik aurrera Jagon saileko zuzendari izanen dela.

Euskaltzainak, amezti.eus-en entzungai duzuen elkarrizketan, azaldu zizkigun zeintzuk diren sail honen helburuak eta ez dira makalak: euskara sustatzea, erabilera zabaltzea, hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta hitzunen eskubideak zaintzea dira eta. Euskaltzaindiak bere sorreratik du Jagon sail hau.

Nafarroan euskararekin zer ikusia duen elkarte, komunikabide eta egitasmoetan parte hartu du aktiboki. Askoren sortzaile ere izan da.

Euskara irakasten aritu da, buru-belarri, bai eta euskal kultura ezagutzera ematen ere, euskarazko komunikabide batzuen hastapenetan, euskaltzaleen elkarteak sortzen laguntzen. Euskararen zerbitzura beti lanean ezagutu dugu Sagrario, lan praktikoa.



▲ Sagrario Aleman Jagon sailaren zuzendaria



IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote

Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Ostalaritzak gelditu edo birmoldatu egin behar izan du bere jarduerak

Gehienek itxi egin behar izanen dute, hala ere badira eramateko menuak eta beste hainbat gauza prestatuko dituzten gutxi batzuk ere. Dena den guztiek pentsatzen dute akaso itxiera hau esan baino luzeagorako joanen dela. Ikusiz joan behar.

Gure eskualdeko ostalariei zuzenean eragin die beraien negozioak itxita edukitzeko aginduak, hala ere inguruan dauden hornitzaileei, langileei eta beste batzuei ere eragin die aginduak. Herri txikiak dira gureak eta ohitura ere ez dago jana ostatuan bertan hartu eta etxera eramateko; ostatura gehiago herrian bertan bizidunen elkargune bat da, elkar ikusteko eta egoteko aitzakia.

Guztiek itxi egin behar izan dute gauzak argi ez izan arren, aholkularitzetara deitu eta han ere ezin zuten informazio zehatza jaso, agindua indarrean sartu eta lehenengo egunetan.

Gauzak honela itxita egonen dira: Olagueko "La Txikita", Beuntzako ostatura, Eltzaburukoa, Alkozkoa, Gerendiaingoa, Etxalekukoa, Beruetekoa, Lantzkoa, Orokietakoa eta Latasako Biltegia. Igoako ostaturak bazituen ostalari berriak, baina, ixteko agindua ireki baino lehenago iritsi denez, itxaron egin beharko dugu ezagutzeko.

Eramateko hainbat gauza prestatuko dituzte Apeztegiberrin, Izarpe kanpinean, Auzako ostatuan eta Larraintzarko ostatuan ere. Hauetan, haien facebook orrialdeetan aurkituko dituzue menuak eta beste xehetasun guztiak. Esan digutenez, aurreko konfinamenduan pizzak, fritoak, eramateko oilasko erreak eta halakoak egin zituzten ostatu hauetan eta ongi joan zitzairen.

Langile batzuk ere badira beharrean gure zonaldean eta normalean ostaturen batean bazkaltzen bazuten, orain duten aukera bakarra menua eskatu eta bazkaltzeko aterpe bat bilatzearena da.

Dena den ostalari batzuek adierazi ziguten pena dela eskualdean elkarerik ez izatea, honelako egoeretan denak erantzun bat emateko eta aurrera begira ere elkar lana sustatzeko. Batzuek Iruñeako elkarretaratzetan parte hartuko dutela esan ziguten. Haserre daude asko, guztiak etsita.

Bistan da egoera honek hankaz gora jarri duela eskualdean lan eta zerbitzu ematen diguten hainbat pertsonen ogibidea. Beste hainbat ekimen kultural ere bertan behera geratu dira, ostatu edo tabernetan egin behar zirelako.



▲ Berueteko ostatura



Elikagaien bankurako boluntarioak behar dira

Hilean behin zonaldeko familia ugari oinarritzko elikagaiak helarazten dizkio Nafarroako Elikagaien Bankuak. Gure eskualdean, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak kudeatzen dute elikagaien bankuaren lana, eta orain arte Denok Bat jubilatuen elkarteko boluntarioekin egiten zuten banaketa. Koronabirusak eragindako egoera dela eta, ordea, boluntario berriak behar dituzte.

“Alarma egoera ezarri zenean bi hilabetez etxez etxeko banaketa egiten aritu ginen, eta hor boluntarioen beste poltsa bat osatu genuen”, azaldu zigun Miren Uharte Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko kideak. Esan Erran irratian. Baina boluntario poltsa hartako jende asko irailean sartzearekin lanean edo ikasketekin hasi denez, ezin dute boluntario lanekin jarraitu. Horregatik berriz dei egin diete eskualdeko herritarrei izena eman dezaten.

Honakoak dira boluntarioek hilean behin, astelehenetan, egin beharreko lanak: loteak prestatzea eta Iruñera furgonetarekin joan eta elikagaien bankutik Larrainzarra ekartzea. Laguntza emateko prest dauden herritarrek **948 30 53 53** telefono zenbakira deitu beharko dute.



Elikagaien bankua ▲

Ultzama ibaian egondako isurketa bat aztertzen ari dira

Latasa (Odieta) inguruan 30 bat amuarrain hilik agertu dira urri bukaeran, batzuk ur azalean eta besteak hondoratuta. Guardia Zibilaren Sepronako agenteak aritu dira uraren kalitatea neurtzen eta animalion heriotzak isurketa baten ondorio ote diren aztertzen.

Latasako guneko horretan ibaiko urak arren zeudela baieztatu dute. Ustez, hainbat isurketa egon ziren ibaian, eta ondorioz uraren PH maila legediak baimendutakoa

baino handiagoa izan da. Badirudi filtratze bonben sistemako akats batek eragin duela arazoa.

Ebroko Konfederazio Hidrografikora bidali dituzte ibaian jasotako laginak, eta bertan analisia egin eta gero zehaztuko dute ibaiko faunaren heriotza domeinu publiko hidraulikoaren isurketa baten ondorioz gertatu ote den.



Amuarrainak hilik agertu ziren ibaian ▲



Euskadi Saria eskuratu du Joemak eta Polasak

Euskarazko Haur eta gazte literatura saria jaso du Iñigo Astiz eta Maite Mutuberria ultzamarren liburuak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak banatzen dituen euskal literaturako saira da Euskadi Saria.

Iñigo Astiz kazetari eta poetaren liburuari buruz, epaimahaiak uste du "haur literatura peto-petoa" eskaintzen duen liburua dela. "Estilo argi eta zuzenean

idatzitako hamaika poema laburrek harridurez eta ezustez beteko gaituzte, umore dotorez, tarteka baita beltzez eta makarrez ere". Literaturaren alderik ludikoena aldarrikatzen duen lana dela iritzi dio Patxi Zubizarreta buru izan duen epaimahaiak. Poemategi "transgresorea", gainera, Maite Mutuberriaren marrazkien "indar eta konplizitate estetiko apartek" osatzen dute.



▲ Joemak eta Polasak



Zurezko Tallak

— ESKUZ EGINDAKOAK —

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

— MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU] —

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@gmail.com



iritzia



Hedoi Etxarte

ITXAROPENAREN BALADA

2020ko abuztuak 26

Ikusten duzunean nerabe bat maskararik gabegogoan izan: bera da EHn Alemanian baino hiru bider ZIU gutxiago izatearen erantzule.

Ikustean zaharren eskelak biderkatzen gogoan izan: haiek dira azken 30 urteotan ospitaletako oheen jeitsieraren errudun.

Errepikatu Markel Olanorekin:

«Onar dezagun gure sistema sanitarioak modu eraginkorrean erreakzionatu duela, kolaborazio eredu indartsu eta singularra dela»

Ikusten duzunean auzoko lore denda itxi dutelagogoan izan: ez du negozioa kudeatzen jakin, bankuez fidatu, jendeaz ez.

Atzerrian Espainiako osasungintzaren ahulezia nabarmetzean gogoratu: afera ez da sistemaren murrizta afera pertsonala da.

Errepikatu Maria Chiviterekin:

«Afera norbanakoaren ardura da, bete behar dira maskara, distantzia eta higiene neurriak, bereziki senide eta lagunekin»

Auzoko zapata denda ixtean gogoratu: jabeak bere burua formakuntza etengabea izan behar zuen, online salmenta sustatu.

Errepikatu Denis Itxasorekin:

«Konfinamendu fasea bezain ongi egin behar da arintze fasea eta horretarako tresnak behar ditugu. Tresna hori Alarma egoera da»

Bartzelonako Pedralbeseko bizi itxaropena 86,5 urte dira, hiri bereko Torre Barón 75,2: ez izan zalantzarik, Torre Barókoek ez dute bere burua zaintzen.

Eta Euskal Herrian bada aberatsik? Pobrerik?

Abestu itxaropenaren balada:

«Guztiok gara euskaldun guztiok anaiak gara»

2020ko martxoan pandemiak EH jo zuen. Ordutik ez da ospitale ala osasun etxerik eraiki.

Ez da oposiziorik egin erizainak anbulantzia gidariak anestesistak medikuak garbitzaileak jagoleak masiboki kontratatzeke. ZIUak muntatu dira beste gaixoen unitateak kenduz.

Norena da errua? Nerabeena zaharrena tabernariarena lore denena zapatariarena garraiolaiena eskuak ongi garbitu ez dituztenena jolasparkeena jubilatuen grebalariena.

Gelditu etxean. Txalotu polizia. Salatu auzokideak. Eta segi bankuen meneko agintariei jaramon egiten

Marta Perez Loperena egozkuearra seigarren sailkatu da Euskal Herriko Artzain Gazta Txapelketan

Idiazabalgo pilotalekuan, urriaren 11an ospatu zen Euskal Herriko 37. Artzai Gazta Txapelketa. Bertan parte hartu zuen gure zonaldeko Marta Perez Loperenak eta seigarren postua lortu zuen. Aldez aurretik Uharte Arakilen ospatu zen Nafarroako Txapelketan bigarren postua lortu zuen.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako txapelketetan sailkatutako lehen hamar gaztak izan ziren Artzain Gazta Txapelketako hautagaiak, guztira berrogei. Latxa ardi esne gordinarekin eginiko gaztarik onena zein zen erabakitzeke lau epai mahai egon ziren; mahai bakoitzean gaztagile aditu bat, artzain bat eta Idiazabal Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzaileko dastatzaile bat egon zelarik.

Sailkapena ezagutu eta gutxira, jende askok zoriondu zuen Marta, eta ez bakarrik egin duen gazta bikainagatik, sare sozialetan irakurgai izan dugun bezala, gure gaztaren atzetik dagoen kultura, paisaia, ondarea eta etorkizunagatik ere bai.

Beraz, nola ez, jaso Marta gure zorion beroenak ere eta jarrai ezazu gazta bikain hori egiten.



Marta Perez Loperena ▲

Jose Antonio Garbisu, hamar urtez euria neurtzen

Agenda batean apuntatzen du euria egiten duen bakoitzean, huts egin gabe; Gaur, urriaren 23an, 22 litro. Baita izotza egiten duenean ere. 79 urte ditu eta Muskizkoa jatorriz, bere anaia bizkiarekin batera, bertan jaiotako gelditzen diren azkenak dira. Beste anaia bat dute Iruñean. Bertan jaio eta ez da inoiz herritik aldendu, soldaduska lfnin egin behar izan zuenean bakarrik, derrigorrez (1969ra arte espainiar kolonia eta orain Marokoko herria da lfn). Osasuna ongi izan du, behin bakarrik izan baita ospitalean, tendoi bat hautsi zuenean. Baratza garrantzitsua da berarendako, eta agian horregatik eman ditu azken urteak zerura begira. Tira, zerura baino gehiago, euria neurtzen duen Nafarroako Gobernuko tresna zaharrari.

Noiz hasi zinen datuak jasotzen eta zergatik?

Semearen adiskide batek Nafarroako Gobernuan, horretan, egiten du lan, eta zahartuta baina ongi zegoen tresna horietako bat eman zidan, eta horrekin neurtzen dut. Bestela ere erraza da, baldin baduzu zabalera eta altuera bera duen ontzi bat, horrekin aski da: litro bat milimetro bat da.

Duela 15 urte agenda batean hasi nintzen hartzen egunerokoa, zer egiten nuen idazten nuen. Eta hor

hartzen ditut datu meteorologikoak ere. Horrela, jakin nahi baldin badut zer egin duen, ea gehiago edo gutxiago egiten duen ... Dena den, 10 urte gutxi da kontu hauetan, garapena zein den ikusteko epe luzeagoa beharko luke. Gero jendeak galdetzen dit "zenbat euri egin du?" eta nik esaten diet.

Askok galdetzen al dizute?

Bai, ia beti udan, lehor dagoenean, jendea euria egitearen zain dagoenean pozik jartzen dira eta jakin nahi dute zenbat bota duen.

Askotan gertatzen da uste duzula asko egin duela eta pentsatzen duzuna baino gutxiago egin du.

Eta, nabaritu al duzu eguraldia aldatu duenik 10 urte hauetan?

Ez dakit, baina begi bistan ikusi daitekeena da elur franko gutxi egiten duela. Azken urtean ez du ia egin, igual 10 egunez pixka bat zuritu zuen baino ez zen ezta garbitu behar izan ere. Gaztea nintzenean oroitzen naiz elur asko egiten zuela.

Eta zuk zer nahiago duzu? Elurra eta euria botatzea edo ez?

Gustatu edo ez uste dut beharrezkoa dela. Gero, bestela, udan oso lehor egoten da eta arazo bat izaten da hori zelaiendako eta edateko urarendako. Elurra niri ez zait asko gustatzen, oztopo ere izaten delako, baina beharrezkoa dela uste dut. Neguan ez badu nahikoa egiten gero udan nabaritzen da.

Ondorik ez dagoela esaten dute...

Bidasoan atera direla esan dute, baina hemen ez dakit. Ni duela 10 egun edo egon nintzen, baina Basaburua hau baino askoz hobeto da onddoendako, euri gehiago egiten du. Jada ez dakit aterako diren, berandu samar da honezkero.



▲ Metalezko zilindro bat bezalakoa da, ura hortik plastikozko ontzi batera doa. Ondoren ontzi horretako ura probeta moduko batera bota eta hor ikusi ditzakezu mililitroak.



Hemen da ingurua zaintzeko eta kontzientziak pizteko brigada

Ingurumenarekiko eta bere zaintzarekiko ardura duten hainbat imoztarrek talde berria sortu dute uda partean: Imozko talde berdea. Pausoak pixkanaka eman nahi dituzte, txikitik baina segurutik ekinez. Momentuz, herritarrei udan pasatu zieten galdetegiaren bidez Imotzen zaborra pilatzen diren tokiak identifikatu dituzte eta horiek garbitzeari ekinen diote, auzolanean.

Abenduaren 6an egingen dute lehendabiziko topaketa: hondakinak biltzera aterako dira taldeetan banatuta. "Helburua ez da, besterik gabe, hondakinak biltzea; besteenganako eredu izan nahi dugu, atentzioa piztu eta kontzientziak astindu", diote ekimenaren berri emateko zabaldutako oharrean. Izan ere, Imotz inguruan zaborrez pilatutako bazter asko daudela diote, eta hondakinak han-hemen botatzeko ohitura horrek etenik ez duela uste dute. Alderantziz, zenbait kasutan okerrera egin duela ere

adierazi dute talde ekologistako kideek.

Jendartearen jarreraren aldaketa bat gerta dadin hezkuntza oinarritzotzat jotzen dute: heziketa eta gaiaren inguruko sentsibilizazioa jasotzea beharrezkoa da, baina ez hori bakarrik: hitzetatik ekintzetara pasatzea ezinbestekoa da kasu honetan, eta horretarako herritarren borondatea nahitaezkoa dela diote. Egoerari buelta emateko asmoz abiatu dute ekimena, eta aurrera begira proiektu egingarriak eta

helburu konkretuak zehaztea dute asmo. "Mantso-mantso hastea erabaki dugu, asmo eta anbizio handirik gabe hastapenean", diote.

“ Hitzetatik ekintzetara pasatzea ezinbestekoa da, eta horretarako herritarren borondatea behar da ”

Imotzeko brigada

Abenduaren 6an
10:00etan

— Latasako pilotalekutik —
Plazaolako bide
garbiketa heldu zein
umeentzat

— 12:00tan otamena —
Imozko Udalaren eskutik

*Izanez gero, lanerako
eskularruak, txaleko horia
eta pintza biltzaileak ekarri

saihestu dezagun!



• ZABOR-GUNEAK IDENTIFIKATZEKO INKESTA HERRITARREI

Beste ezer baino lehen, Imozko hainbat txokotan dauden zabor pilaketak identifikatzea izan da taldearen erronka. Horretarako, herritarrei inkesta bat zabaltu zieten, beraien herrietan zabor pilaketak non ikusten zituzten azal zezaten. Ekimenak erantzun ona jaso zuen herritarren partetik, eta jasotako datuekin eta identifikatutako tokiekin Imozko Udalera jo zuten orduan taldekideek: "Hasiera-hasieratik laguntzeko eta inplikatzeko asmoa eta jarrera agertu du Udalak", diote oharrean.

Alfredo Alzueta Imozko alkateak udal taldean ekimena begi oso onez ikusi dutela adierazi eta Udalak brigadarekin bat eginen duela ere gehitu du: "Ekimen xume honez gain, aurrera begira Udaletik garai bateko zabortegei zaharrak aztertu eta mapa batean kokatzeaz ere hitz egin genuen. Pixkanaka udarako udal kontratazioen bidez gune horietan garbiketa lanak egitea izanen litzateke ideia", dio. Momentuz pausoz pauso joanen dira, eta herritarren partetik

erantzun ona jasotzen badute bide horretan jarraituko dute.

Brigada berdearen eta Udalaren elkarlanaren bidez, biak ere norabide berean joanda, lanketa polita egin daitekeela uste dute egitasmoaren bultzatzaileek.

• ABENDUAREN 6EAN HITZORDU GARRANTZITSUA

Esan bezala, Brigada Berdearen lehen hitzordu garrantzitsua izanen da abenduaren 6an: Latasako pilotalekuan batuko dira ekimenean parte hartu nahi duten herritarrek, goizeko 10:00etan. "Inkestek erakutsi dutenez, Plazaola bidea da ingurumen-inpaktu handiena jasaten duen zatia, jende gehiena biltzen duen tartea baita Imotzen", adierazi dute. Ekimenera batzen den jende kopuruaren arabera, taldeak antolatuko dituzte bertan, ibilbide desberdinak garbitzeko. Haurrendako pentsatutako ibilbidea ere jarriko dute, familiek ere ekimenean parte hartzeko aukera izan dezaten. Hiru ibilbide zehaztu dituzte: Plazaola bidea, errepidetik Kaxarna alderakoa eta

“ **Plazaola bidea da ingurumen-inpaktu handiena jasaten duen zatia** ”

errepidetik Urritzako Benta eta San Migeltxo aldera doana.

Herritar guztiei lehen ekimen horretan parte hartzeko dei egin diete talde berdeko kideek nahiz Udalak. Ikusi beharko da koronabirusak eragindako egoeraren ondorioz ekimena aurrez pentsatu bezala egiterik izanen ote duten ala egoera berrira egokitu beharko duten. Edozein modutara, batu daitezela herritarrek, bada, ImotzEKO brigada berdera!

Galdetegia

Hauxe da Imozko herritarrei brigadatik helarazi dieten galdetegia (norbaitek oraindik bete nahiko balu, erantzun eta brigadako kideekin edo Udalarekin harremanetan jar daiteke):

1. Zure herriko zein txokotan pilatzen da zabor gehien, zure ustez? Zigarro-mutxikinak, plastikoak, latak, etab.
2. Imozko errepedeetako zein tartetan pilatzen da zabor gehien, zure ustez?
3. Imozko mendietako zein pista edo xendatan ikusi duzu zaborra?
4. Beste lekuren bat bururatzen zaizu?
5. "Ekintza berdearekin" lotutako beste proposamen edo ideiarik? Eskerrik asko parte hartzeagatik!



Ingurune naturalean dauden zabor-pilaketak identifikatu dituzte Imotzen (Argazkia ez da gure eskualdekoa)







Olagueko Kontzejua

“Herri mailako bozketa bidez erabaki dugu nortzuk izanen diren Kontzejuko ordezkariak”

lazko maiatzean izan ziren Kontzejuetako hauteskundeak, baina gure eskualdeko zenbait tokitan ez zen inor aurkeztu hauteskunde horietara, Olaguen (Anue) kasu. Urrian, bigarren aldiz deitu ziren Nafarroako herritarrek bozkatzera ordezkariarik gabe gelditu ziren Kontzeju horietan, baina Anueko herri nagusian ez zen inor aurkeztu bigarren aldi hartan ere. Gestora bat jartzen du Nafarroako Gobernuak kasu horietan Kontzejuaren kudeaketa egiteko; Olaguen, ordea, egoera hori ekiditeko herri mailako bozketa bat egitea erabaki zuten martxoan, eta horrela aukeratu zituzten ordezkariak. Bost laguneko taldea lanean ari da geroztik.

Ez da Kontzejuko ordezkariak aukeratzeko modu hori erabiltzen duten lehen aldia. Izan ere, aurreko legegintzaldian gauza bera egin zuten talderik aurkeztu ez zelako. Jose Luis Iraizotz egungo Kontzejuko lehendakaria eta Juan Martin Esain aurreko legegintzaldian ere ordezkari izan ziren: “Herri mailako bozketan aurreko legegintzaldiko bost ordezkari berak ateratu ginen, baina horietako bik 12 urte zeramatzaten Kontzejuan eta beste batek lau, eta ez zuten postua onartu”, azaltzen dute Kontzejuko kideek. Hurrengo postuetan gelditu ziren beste hiru pertsonak pasatu ziren orduan taldeko kide izatera, eta erronka onartu zuten hiruek: Jesus Larralde, Virginia Eleta eta Javi Otondo dira hiru horiek. Dena den, aurreko legegintzaldietako kideen eta aholkularitza enpresa baten babesa eta laguntza ere badutela diote, baita herritarrena ere. Hori eskertzeko aprobetxatu dute elkarriketa.

“**Herriarren arteko bitartekari lana egitea askotan egokitzen zaie Kontzejuko kideei**”

• PROIEKTU UGARI ESKU ARTEAN

Kontzejuak herri txikiak izanik, lan karga handiegirik izaten ez dutela pentsatuko dute batzuek. Ez da horrela izaten, ordea: “Kanpotik badirudi ezetz, baina badu bere lan karga: karrikak, bideak, pistak, lur komunalak eta hilerria. Horiek dira Kontzejuen eskuduntza nagusiak, baina askotan herritarren arteko bitartekariak izatea eta beraiei proposamen eta eskakizunak jasotzea ere badagokigu”, dio Kontzejuko lehendakariak.

Lantaldeko bost kideak profil ezberdinetako jendea izanik, lan banaketa modu egokian egiteko aukera dute: Jose Luis Iraizotzek eta Virginia Eletak kudeaketa eramaten dute bereziki, Juan Martin Esain diruzaina da, Jesus

Larralde mendia eta pisten ardura du eta Javi Otondok idazkari lana egiten du batez ere.

Martxoan martxan jarri zirenetik hona egoera berri honetara egokitzen eta ahal bezala moldatzen joan direla kontatzen dute, baina esku artean badituzte ideia eta egitasmo ugari: momentuz, herriko argiteria guztia aldatzen ari dira, LED argiak jarritz energia efizientzia bultzatzeko eta kostuak txikitzeko. Datorren urteari begira, berriz, haurren parkea berritzeko asmoa dute, eta Mediano ibaiko Ezkati ubidea hobetzeko lanak egitea ere badute buruan.

Egoera zaila izanda ere, gogoz dago taldea, beraz. Ibilbide oparoa izan dezatela hurrengo urteotan!



Eskubitik ezkerrera,

Jose Luis Iraizotz lehendakaria, Virginia Eleta, Juan Martin Esain, Jesus Larralde eta Javi Otondo

Altueraz txikiak, bihotzez erraldoiak

Asian sei hilabete eman zituen Mikel Beuntza Urtasun gerendiandarrak. Hiru Nepalen, India eta Tailandiara joan aurretik. Besteak beste mendiak ezagutzea gustatzen zaio eta horretarako Nepal, musulmanendako meka bezala dela aitortzen du. Baina jendea ezagutzea eta haien zoriontasuna izan da gehien markatu duena.

• ZER SENTITU ZENUEN HIMALAYA IKUSI ZENUENEAN?

Zortzimilak ikustea ikaragarria izan zen niretako, hain altuak, hemen ezin dugu imajinatu nolako mendiak diren horiek. Montzoi garaia zen, eta lehenengo asteen ez genuen mendia ikusi. Bagenekien hor zeudela baina ez genituen ikusten. Goiz batean, gosaltzen ari ginela, bat-batean 'hara, zer da hori?', zeruan zer bait ikusi genuen. Anapurna mendia zen, 8.000 metrotik gorakoa, baina bakarrik tontorra ikusten zen, gainontzeko guztia lainoa zen. Zeinen txikiak garen etorri zitzaidan burura. Beldurra ematen du, zuregain erori behar dela ematen baitu! Ikaragarria da.

• NOLAKOAK DIRA HAIEN ETXEAK ETA BERTAKO FAMILIAK?

Etxe zahar batean bizi nintzen. Ateen markoek ematen zidaten atentzioa, burua jotzen bainuen aldioro. Han oso txikiak dira, eta atea baino altuagoa zarela ez zara konturatzen, kopetan jotzen nuen.

• EUSKAL HERRIAN MENDIAK IGOTZEKO ZALETASUN HANDIA DAGO. HAN ERE?

Ez, haiek galdetzen zuten: "baina, zertarako igotzen zarete mendira? Mendiak ez du ezer ekartzen!". Turisten zamaketari gisa lan egiten dute, horrek lan asko ekartzen. Orain, pandemiaren kontu honekin nahiko gaizki pasatzen ari dira. Dena den, beti dute norberaren baratza,

“ Ezin dugu imajinatu nolako mendiak diren horiek ”

baita bost milioi biztanle dituen Katmandun ere; hau da, jatekoa badute, baina dirua irabaztea ez da erraza.

• ZER JATEN DUTE?

Arroza pila bat, 50 kiloko zakuak erosten dituzte. Beti izaten genuen dal bat, dilistak dituen plater moduko bat, arrozarekin eta barazkiekin nahasteko, baina dal hori ez zen inoiz berdina.

• BOLUNTARIO ZINELA, ZER EGITEN ZENUEN?

Distrofia muskularra zuten bi mutil lagundu. Lepotik gora eta eskuak besterik ezin zuten mugitu gaixotasun degeneratibo baten eraginez. Fisioterapia ariketak egiten genituen, eguzkia hartzen genuen bitartean mintzatzen aritzen ginen, jolasten, egia esanda gauza txikiekin sekulako irrifarra erakusten zizuten. Ezta aulkitik altxatu ezin den norbait zoriontsu ikustea, hori sekulakoa da.

Mikelek kordoi gorri bat darama beti lepoan:

"Torturatua izan zen errefuxiatu tibetar batek oparitu zidan, emaztea eta umeak hil zizkioten Tibetean; ondoren, oineko behatzak galdu zituen Himalayan. Gaizki sentitzen naizenean begiratu eta pentsatzen dut 'igual ez nago hain gaizki'".



▲ Mikel Beuntza Nepalen



Gerra gure alderdian (III)

ATETZ

BOLUNTARIO AUNITZ

Atetzen nolako gazteria zegoen! Atetzen eta nonahi orduan. Pentsa, 1927-1941 artean, biak barne, gerrara joan ziren 102 mutil ziren Atetzen. Bai, bai, ongi irakurri duzu: 102 mutil.

Behartuak, adinez tokatzen zitzaielakoz? Ez, jakina, hasiera batean soldadu zeudenak eta boluntarioak joan ziren frentera. Ondoren, gerra luze joanen zela ikustean, abuztuaren 9an, "La Junta de Defensa Nacional" deituak, Burgosen eratuak, 1933, 1934 eta 1935eko kintetakoak deitu zituzten, denak ere soldaduska egina zutenak. Eta handik aitzina, gainerako guziak, pixkanaka-pixkanaka. Denetara 15 kinta deitu zituen Francoren gobernuak, 1927 eta 1941 arteko guziak, biak barne, hau da, 15 kinta.

Erran ere erran behar da, kinta zaharretako aunitz eta aunitz hemen bertan gelditu zirela, fronteretako polizia gisa edo, Iruñean, laguntza emateko

zerbitzuetan eta horrela.

Atetzen boluntario aunitz joan zen gerrara, 35 lagun. Dena dela, gerra hasi zen egunean ez, hau da, uztailaren 19an inor ez. Hala ere, uztaila bukatu baino lehen 9-10 lagun boluntario joan ziren. Eta berenduago bertzeak. Bai, Atetzen ere karlistak mugitu zirela argi dago, baina hemengoak ez zeuden prestatuak gerra hasi aitzinetik, Odieta eta Lantzen bezala.

BAINA EZ DENAK

Boluntario ageri direnak, hala ere, ez ziren denak boluntario joan. Egurasko Feliciano Ekiza Zia behintzat ez zen hala joan, izugarri larri ibili zen gizajoa.

Honek Aroztegiko bordan, ostatuan, hala erran omen zuen: "Yo soy comunista" "¡Viva Rusia!". Eta bakarren batek denuntziatu. Guardia Zibilak bazetozela eta apezak eta Jose Sarasibarrek erran omen zioten ihesi egiteko eta boluntario apuntatzeko.

Horrela ihesi egin zuen, zorionez, zeren, berehala guardia zibilak etorri eta baionetarekin sabaian ibili omen ziren belar pila ziztatzan, Felizianoren bila.

Gertaera hau gerra hasi eta oso laster izan zen, uztailaren 29an joan baitzen soldadu. Erreketeetan, Lacar Tertzioan egin zuen gerra, eta 1937ko udaberrrian lizentziatu zuten. Isturitzen etxean bizi zen gizon honek 37 urte zituen, ez zen haur bat, hala ere tabernako kontu ziztrin batengatik gerrara joan behar izan zuen. Eta kontent!

ATEZKO HILAK

Caidos por Dios y por España deitu liburuan, bederatzi hildako ageri dira. Harrigarri xamarra egin zaiguna da 102tatik 35 boluntario joan eta 9 hiletatik 3 bakarrik zirela boluntarioak. Hasieratik frentean, eta hala ere ez ziren okerren atera zirenak.

Beratsainen hiru hil ziren, eta horietatik, gutxienez **Matxinekoa**,

Francisco Beltzuntze, Ziganda-Beratsain

Luis Iribarren, Beratsaingo **Matxineko** semea. Bilbo hartzean hila.Martin Oskotz Ilarregi, Beuntzako **Saturdiñenekoa**, gerrara joan eta bi hilabete baino lehen hil zen.



Nafarroan gerra hasi uztailearen 19an, eta Vicente Barberia Aranguren, **Iriberriko semea**, 23an joan Iruñera, boluntario; eta biharamunean 24ko atsaldan, Zaragozako Diputazioan, beste bakar batzurekin, Errepublikako bandera kendu eta hori-gorria zintzilikatu zuen.



Hona hemen Beuntzako Ximoneko Martin Sarasibar Redin; bizirik atera zen. Hau eta beste hiru anaia ere bai (Lau anaia gerran, lau! Eta gure alderdian ez zen izan kasu bakarra)

GUARDIA ZIBILAK, POLIZIAK ETA ANDOAINGO BONBA FABRIKA.

Eguarasko mutil franko joan omen zen guardia zibil edo polizia; egia errateko, bortz, hiru etxetakoak. Eta Atetzen kantu edo jota bat atera zieten Eguaraskoei, erdi burlez. Grabatua dugu eta horra kantu horretako hitzek diotena:

Pueblo de Eguaras

Pueblo de Eguaras;

Pueblo de revolvedores;

Se meten guardia civiles,

Por malos trabajadores.

Bai, harrigarri xamarra da horrelako herri ttiki batetik bortz guardia zibil edo polizia ateratzea, jakinik gainera hemen ogibide hori gaitzetsi antza izan dela (eta dela orain ere) Oraindik gehiago harritu naiz paper miran ari naizela Aroztegiko bi soldadu karabinero joan zirela ikustean.

Gero, badugu bertze kontu bat ere aipatu beharrekoa. Andoaina, bertan zen bonba fabrika batera soldadu aunitz joan zela soldaduska egitera. Gerra ondoren ere gure alderditik Gipuzkoara joan izan da jendea, eta, hain zuzen, Andoaina ez gutxi.

Nolanahi dela, Atetzen gerra kontua zela eta, lana opatzeko eskaira izan zuten. Nonbait, bazen baten bat aunitz zezakeena horrela bertakoendako lana opatzeko, ez baita hor ikusten duguna nonahi ikusten dena. Nabarmena!

Nor ote zen horrela lana opatzen zuena?

hona ekarri zuten lurperatzeko. Beremundo **Azpikoetxeko maistarretxekoa**, berriz, ugalde bat pasatzean ito egin zen, 19 urte betetzeko sei egun faltan. Eta azkena Francisco Beltzuntze, **Frantxenekoa** zen (Egia erran, Beltzuntze familia Zigandako **Amingonean** bizitu zen, maistar, eta gero gerra aitzinttoan edo ondorettoan Beratsaingo **Frantxenera** pasatu zen bizitzera).

Beuntzatik hiru: bat **Saturdiñenekoa**, gerra hasi eta bi hilabeten buruan hil zen, Martin; eta bertze biak **Beuntzelarrekoak**, Martin Ostitz eta Juan Goñi (1) lehena 1936ko abenduaren 6an hil zen, Villarreal-Arabako gudukan, eta bigarrena bonba fabrika batean ari lanean eta leherketa baten ondorioz, lan istripuz.

Zigandatik, bat, **Karakoetxekoa**, Lazaro. Mutil hau kanoikada batek bete-bete harrapatu zuen eta hil zen.

Eta Eritzen bi izan ziren hilak:

Jesus Lista Ataun, Lista-Ataun familiakoa. **Perutxeneko bordan** bizi zen eta Argiñanotik etorritakoa zen familia hau.

Eta bigarrena, berriz, **Lopenean** bizi zen Pedro Lopez Olasagarre da. Mutil hau, kaboa zenean, Lerida aldeko frentean larriki zauritu zuten bularrean, 1937ko martxoaren 4an, eta Ospitaletik 1938ko abuztuan atera zuten, 18 hilabete bertan egin ondoren. Mutilatua erabat, eta gerra bukatu eta bi urtetara hil zen, 1941eko maiatzaren 12an.



Txurdan

(1) Oharra: Liburuan ageri diren guziak sartu ditugu hemen ere. Hala ere erran behar da Juan Goñi Ekiza hori ez zela Atezkoka. Bere gurasoak eta senideak Juan hil zen urtean, 1938an, etorri ziren hona, Beuntzelarrera, Orderitz-Izatik. Dena dela, aipatu behar da Liburuan Orderitzen ere sartu zutela. Oker hori opatu dugu liburuan.



Atetz

IZENA	1. DEITURA	2. DEITURA	HERRIA	ZEIN ETXETAKOA ZEN	SORTEGUNA	NON	HERIOTZA EGUNA	ADINA	NON ARIZEN BORROKAN
FRANCISCO	BELZUNCE	CIGANDA	BERATSAIN	Frantxenea	22/9/10	Ziganda	26/12/36	26	Erreketea
VEREMUNDO	GOLDARAZ	LARRAYA	BERATSAIN	Azpikoetxeko Maistarretxea	11/1/20	Txulapain	5/1/39	19	Armada
LUIS	IRIBARREN	SAGARDIA	BERATSAIN	Matxinea	26/10/04	Beratsain	11/6/37	32	Erreketea
JUAN	GOÑI	EQUIZA	BEUNTZA	Beuntzelarrekoa (1)		Orderitz-iza	23/6/38		Armada
MARTÍN	OSCOZ	ILARREGUI	BEUNTZA	Saturdiñenea	15/8/14	Beuntza	4/10/36	22	Armada
MARTÍN	OSTIZ	IRIBARREN	BEUNTZA	Beuntzelarreko Migelen etxea	11/12/12	Atetz	4/12/36	24	Armada
LÁZARO	BARAIBAR	IRURITA	ZIGANDA	Karakoetxea	18/2/14	Ziganda	15/5/37	23	Armada
JESÚS	LISTA	ATAUN	ERITZE	Perutxeneko Borda	18/1/14	Argiñano	11/6/37	23	Erreketea
PEDRO	LÓPEZ	OLASAGARRE	ERITZE	Lopenea	20/3/16	Ilarregi	12/5/41	25	Armada

Preso hartu zuten beratsaindarra

Gure alderdian preso egondako soldadu gutxi aurkitu izan dut. Horieta bat Cruz Eritze Gaskue dugu, Beratsaingo Garistonekoa.

Garistonetik bi anaia joan ziren gerrara, Cruz eta Juan Bautista, biak Francoren armadan. Cruz, Gipuzkoan, preso hartu zuten

Cruz Eritze Gaskue, Beratsaingo
Garistonekoa, Bilbon preso egondakoa. ▼



1936ko irailaren 25ean. Bere iloba Blancak erran digunez, ustekabean, "gorrien" aldera pasatu eta atxilotu zuten.


Udalak zuzemenak egin omen zituen ea libratzen ahal zuten eta bisitaz ere joan omen zitzaizkion familiakoak.

Eta gehitu digu: "ez zitzaion gerra kontuez aritzea gustatzen. Ez zuen

deus kontatu nahi izaten, oso gaizki pasatu zuela bai, gauza gogorrak ikusi zituela ere bai". Eta bukatu du erranez, "gure osaba oso gizon baketsua zen"

Udal idazkariak Cruzen soldadu-fitxan jarri zuen 1937ko ekainaren 29an askatu zutela,

Bilbo erortzean (Baina, Bilbo 19an erori zen)



2011ko abuztuaren 11ko fotografian Dionisio Bergera, bere etxeko atean, Eritzeko **Antsonean**. Egun horretan, Dionisio, xaloa halakoa; Pedro Landiribar, Zigandako **Amingoneko** semea, lizto amorratua, eta hirurok egon ginen hizketan gerrako kontuez eta beste hainbat gauzez Eritzeko Antsoneko ezkaratzean. ▲



Goxua

Zeferina Bailon Ansorenak goxua prestatzen irakatsi zigun Itsasoko elkartean

Itsasora itzuli gara errezeta bila. Oraingoan, Zeferina Bailon Ansorenak goxua prestatu digu, bere tokearekin, noski. Saiatuko al zarete prestatzen?

OSAGIAK

'Soletilla' bizkotxoak

Litro eta erdi esne

3 puska kanela makil

6 koilarakada azukre

3 sobre potax maizena

3 kutxatxo esnegain (600 ml)

Txokolate siropea

• PAUSOAK:

1) Soletilla bizkotxoak buztinezko kazuelan jarri, oinarri gisa. Esne pixka bat bota gainetik, pisua har dezaten, bestela gero gorantz igoko dira.

2) Litro eta erdi esne suan jarri. Hortik edalontzi bat esne bereiziko dugu gero potax maizenarekin natilla egiteko. Suan dugun esnean hiru koilarakada azukre eta hiru puska kanela makil bota.

3) Suan dugun esnea beroa hartzen doan bitartean natilla egingo dugu. Horretarako, bereizitako esnean potax maizena sobreak botako ditugu. Poliki-poliki nahastuko dugu, pikorrik geratu ez dadin.

4) Suan dugun esnea irakiten hasten denean potaxarekin egindako nahasketa botako diogu.

Eta hura ere nahasi egingen dugu poliki-poliki, loditzeko. Kanela puskak kenduko dizkiogu zaporea hartu ondoren. Irakiten hasi bezain pronto sutik kendu, egina dago eta beraz soletillen gainean jarriko dugu, buztinezko ontzian. Ordubete frigorifikoan utzi, hoztu dadin.

5) Orain esnegaina egingen dugu. 600 ml ditugu eta hiru koilara handi azukre botako diogu. Ondoren irabiatu egingen dugu esnegaina loditu arte. Moztu ez dadin, esnegainak eta kristalezko ontziak hotz-hotza egon behar du. Natilla hozten denean esnegaina jarriko diogu gainean.

6) Bukatzeko txokolate siropea jarriko diogu gainean, marrazkiren bat egin dezakegu horrekin. Zeferina Bailonek karamelo bota ordez txokolatea botatzen dio.

▼ Goxua



▲ Itsasoko elkartean prestatu ziguten goxua Zeferinak eta bere senarrak



Zerrikeria biltzen ari gara

Zaborra, zarama, basura... gure herrietako inguruetan zenbat ikusten den! Noiz hasi behar ote dute gure udalek uda guziez kontratatzen dituzten langile horiekin bazterrak pittin bat txukuntzen? Ez duzuela ikusten zaborrik? Jakina, bide eta karretera bazterretara begiratzen ez baduzue, nekez! Horietaz landa, beste zoko ezkutu batzuetara ere begiratzen baduzu...

Dena dela, orain zerrikeria gutxiago botatzen ote den nago ni, batez ere zabor bilketa jarri zutenetik.

Gure hizkuntza ere zaborrez betetzen ari gara. Orain, agudo, eginen ditu hiru urte euskaraz sartzen ditugun zaborrez idatzi nuela hemen bertan: A ver! Vale! Pronto. Edo Por cierto, Por supuesto eta besteren bat.

Bazterretan botatzen diren zerrikeriak beheara egin dugun ustetan nago, baina gure hizkuntzaren gainera egunero botatzen ditugunak gora egin du: Venga! Hombre! Desde luego! Por ejemplo, A tope, Ya está, Pues, En fin, Generalmente, O sea, Acaso, Depende, Listo, Sin más, Es que, Sin falta, Por lo visto, eta mila gehiago. Eta Bueno? Bueno, mila aldiz hitzaldi bakoitzean. Hitz hau erdi onartua bagenu bezala da. Eta harrigarria bada ere, euskaraz hitz egin daiteke bi orduz bueno bat sartu gabe. Euskal Telebistatik ziklismoa ematen duten hiru esatariak, bai Xabier Usabiagak, bai Pedro Mari Goikoetxeak eta bai Fermin Aramendik ez dute inoiz bueno bat bakarria ere esaten. Euskara ona darabilten seinale! Entzun, entzun iezaezu eta ikasiko duzu euskaraz aritzea zer den!

Uste duzu, adiske maitea, horrelako zabor zikin pilek ez diotela kalterik egiten gure hizkuntzari? Pentsatu erdaraz horrela hitz eginen bazenu, baina euskarazko makuluak sartuz: Ongi, Ederki, Jakina, Hots, Esate baterako, Hitz batean... Hurbilekoak edo zurekin hizketan ari denak baimenduko lizukeela uste al duzu?

Kalte hizkuntzari eta kalte entzuleari. Ni nazkatu, gogaitu, eta batez ere, aspertu egiten nau horrelako hizkerak, aspertu erabat, eta nekatu.

Eta nekeak badakizu zer dakarren, irratia itzaltzea, telebistari so esatea, eta lagunari adio egitea. Koronabirusa balute bezala. Zinez!

Utz dezagun behingoz ardo kolorez tindatutako ur zikin hori. Ardoa ardo! Eta frexkoa bada hobe!



Txurdan

OHARRA:

Ya que, iake-ta, iaketa... Erdal makulu hori aspaldian sartu zen gure euskaraz. Orain 80 urte, 120 urte. Baliteke. Ez da arront, goiti aipatutakoak bezalakoa. Makulu honetaz zerbait gehiago hitz egin liteke, baina oraingoz horrela utziko dugu.

Hiztegia

Zarama: Basura
(Bizkaiko hitza da)

Esatari: Locutor, narrador.



Jotakatuta ▲

Zorionak Zorionak !



Zorionak Alicia!



Zorionak Beñat!



Zorionak Unai!



Zorionak Tasio, Amaia eta Nagore!



Zorionak Intya!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!

pulunpe@gmail.com

Nahiz eta txapelketetan parte hartu ez, nirea ere kirola da

Kirol munduan egiten duzu lan, zertan bereziki?

Irakaslea naiz. Larraintzarren, Esteribarren eta Olaguen ematen ditut klaseak. Dantza modernoa, zumba, spinning, hipopresiboak eta entrenamendu funtzionala ematen ditut.

Egia da ez direla berez kirol konpetitiboak, baina ariketa aerobikoak dira eta entrenatuz gero gorputzak hobekuntza fisiko bat nabaritzen du, forman jartzen da.

Dena den aurten bizi dugun egoerak ez du errazten kirola taldeetan egitea eta zaila da Udalentzat osasun neurri guztiak betez kirol jarduera hauek eskaintzea. Gogoia badago, beharra ere bai, eta ikusiz joan beharko dugu aurten lan egiteko aukera nolakoa izan den. Nik uste dut normalizatu den azkeneko sektorea izan den dela. Dena den, nik entrenatzen jarraitzen dut.

Zer ikasketa egin dituzu kirol irakaslea izateko?

Txikitatik beti gustatu izan zait dantza. Akademietan ibili naiz Hip-hop egiten, sabel-dantza ere ikasi dut, eta Otea dantza tahitiarra. Dena den irakasle izateko Kirol Teknikari Titulua atera nuen, derrigorrezkoa da eta. Horrek eman dit aukera beste kirolekin irakasle izateko. Prestakuntza hau oso garrantzitsua da, batez ere ikasleentzat, titulu honek bermatzen baitu ezagutza anatomikoak dituzula, lesioak nola ekidin dakizula eta irakasten duzuna ikasleei ongi bideratuta dagoela.

Oso gustukoa dut, baina onartzen dut Anue inguruan zaila dela honetaz bizitzea, jendea biltzea ez da erraza eta, Iruñean aukera gehiago daude, baina hemen pozik nago.

Nor animatuko zenuke honelako kirolen bat egitea?

Edozeinek egin dezake kirola, bakoitzak bere neurrian. Dantza adibidez pertsona lotsatiei ongi etortzen zaigu, oso kreatiboa da eta ohartu baino lehen erabat murgilduta zaude dantzan, gorputzaren mugimenduarekin. Dena den kirola guztiei egiten digu on, edozein adin dugula ere. Ezinbestekoa da ongi sentitzeko, ez gogortzeko, nahiz eta goi mailako kirolari izan nahi ez. Gaur egun badirudi goi mailakoek

soilik egiten dutela kirola, eta hori ez da horrela. Spinnig, zumba, hipopresiboak eta honelako kirolak ez dira lehiakorrak, baina kirola dira, gutxika-gutxika zure burua gainditzen duzu.

Gaur egun kirola nolabait egitea gomendagarri ikusten duzu?

Nola ez. Mugimendua, fisikoki eta psikologikoki ongi sentitzeko, beharrezkoa dugu. Paseo bat ematera atera, etxean bizikleta estatikoarekin ibili, pesa txikiekin ariketaren bat egin. Pandemia dela eta batere mugitu gabe geratzea ez da ona. Inguruan badugu aukera, pentsatuz gero, zerbait egiteko, nolabait gorputza mugitzeko. Hala ere, antolatzen diren kirol jarduerak, gaur egun, osasun neurri





ekoaholkuak

Energia elektriko berriztagarri eta demokratikora konektatu

Bizitzeko energia behar dugu izaki guztiok. Elikaduratik, eguzkitik... jasotzen dugu bizitzeko oinarritzko energia hori, baina gure bizimoduak hori baino askoz ere gehiago eskatzen du.

Esnatu eta argia piztu, gosaria sukalde elektrikoan prestatu, sakelakoa kargatzen jarri... elektrizitatea behar dugu gure eguneroko jarduera gehienak egiteko. Baina non sortzen da elektrizitate hori? Gehienok faktura jasotzerakoan ordaindu eta ekoizten den lekutik gurera ailegatu arte egiten duen ibilbidea ez dugu ezagutzen. Zer eta nori ordaintzen ari gataizkio? Eta bide


batez, ze eredu elektriko sustatzen ari gara?

Elektrizitatea ezin dugu ikusi eta batzuetan, bere ibilbide eta kudeaketa ikusezinak direla iruditzen zaigu ere.

Azken urteotan elektrizitate sektorean alternatiba interesgarriak sortzen ari dira, elektrizitate berriztagarrien kontsumitzaile eta ekoizle kooperatibak, alegia. Hauek, elektrizitate berriztagarria kontsumitzeko aukera emateaz gain, **elektrizitate eredu demokratikoago batean parte aktibo izateko aukera ematen digute.**

"Energia gara" edo "Goiener" dira horren adibide gertuko bat. Oraindik beraiekin elektrizitatea kontratatu ez baduzu, informatu eta ez astirik galdu, ez zara damutuko.

Energia elektriko berriztagarri eta demokratikora konektatu!



Pausua eman duten batzuk

BASABURUKO UDALA, 2016TIK GOIENERREKO KOOPERATIBISTA:

Ester Lakasta, alkatea: "Jakina merezi duela! Fakturretan gutxiago ordaintzeaz gain kontratatzen dugun energia guztia berriztagarria da"



Basaburuko udal taldea ▲



Tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokietarako Jose Ignacio Sanz Arbizu saria eskuratu zuen Ernaizu kooperatibak 2018an ▲

ERNAIZU KOOPERATIBA, GOIENERREKO KOOPERATIBISTA:

Apeztegi berriko denda eta Orokietako ostatua kudeatzen dute. Virginia Gerendiain: "Gu ere kooperatiba bat osatzen dugunez, interesgarria iruditu zitzaigun, energia garbia delako eta Iberdrola gainetik kendu nahi genuelako. Azken finean Goiener bertako kooperatiba bat da. Gainera, dirua aldetik merkeago ateratzen da. Matxurak konpontzeko, kontratua aldatzeko eta edozein gauza egiteko errexa da".



Kulturaren babeslekua

Patxi Irurzun liburuzainak gogoratzen digu nola parte hartu IGO egitasmoan (e-book bat irabazi ahal duzu!) eta aurkezten digu azarorako ostiral kulturalen programazioa.

Irakurri, gozatu eta oparitu

Aurten ere IGO (Irakurri, Gozatu eta Oparitu), euskarazko liburuaren irakurketa bultzatzeko egitasmoa, martxan da. Eta aurten nobedade erakargarri batzuekin. Deigarriena: parte hartzen baduzu irabazi ahalko duzu liburu elektronikoa, irakurtzeko gailu edo e-book bat. Eskualdeko irakurleen artean egingo da zozketa. Baina ez da zozketa bakarrik izango, horretaz aparte parte hartzen duten liburutegi guztien irakurleen artean 500 liburu (paperezko liburuak) zozketatuko dira. Zer egin behar da parte hartzeko? Hauek dira hiru pausoak:

1-Irakurri: liburutegian hartu beharko duzu maileguan euskarazko liburu bat. Gogoratzen dizuegu gaur gaurkoz liburuak hartzeko beharrezkoa dela alde aurreko hitzordua eskatzea, bai telefonoz (948306747), bai emailaz (liburutegia@ultzama.es). Liburutegiko blogean aurkituko duzue protokoloari, ordutegiari eta abarri buruzko informazio gehiago.

Eta bide batez, hor ere ikusiko duzue nobedadeak (beheragoan aipatuko ditugu), gomendioak, nola jaso etxean liburutegiaren katalogoa ...

2-Gozatu: Hau da, jakina, pausorik garrantzitsuenak, irakurtzeko gozatzea.

3-Oparitu: IGO egitasmoari esker irakurri duzun liburua nahi duzunari oparitzeko aukera izango duzu. Nola? Liburua maileguan hartzeko unean liburuarekin batera emango dizugun fitxa baten bidez. Liburua bukatu ondoren fitxa hori bete beharko duzu zure datuekin, liburua opariko zeniokeen pertsonaren izenarekin eta berarentzako mezu batekin. Eta, azkenik, jasoko diren fitxa guztien artean zozketatuko dira 500 liburu eta, zorte ona baduzu, aukeratu duzun lagunari etxera bidaliko diote oparia.

Parte hartzera animatzen zaituztegu. Eta, azken batean, euskaraz irakurtzera, bai betiko moduan, paperean, bai lortu dezakezuen e-book gailuan.

Nobedadeak

Esan bezala, liburutegiko blogean aurkituko duzue hainbat gomendio zuen euskarazko liburuak aukeratzeko. Eta haien artean jasotzeko ditugun azken nobedadeak. Euskara Mankomunitateari esker erosi ditugu liburu batzuk, adi egon, blogean komentatuko dugulako (besteak beste, Mikel Soto, Amaia Telleria, Asel Lizarraga, edota Beatriz Txibite dira liburuaren egileak) baina azpimarratu nahi ditugu azken Euskadi Sariak: **Dendaostekoak**, Uxue Alberdirenaren, **Aitarene etxea**, Karmele Jaiorenaren, eta batez ere bi ultzamarren liburu sariduna: **Joemak eta polasak**, Iñigo Astizena eta Maite Mutuberriaren. Zorionak bie! (komentatuko ditugu datozen Pulunpeetan liburu hauek eta beste nobedade batzuk)





Ostiral kulturalak

Liburuez aparte, kontzertuez, komikiez, bidaiez, arteaz ... goza ditzakegu. Behintzat lerro hauek idazten ditugun unean. Ostiral kulturalen programazioa hasi zen irailean, protokoloa betez: distantzia, edukiera mugatua (gaur gaurkoz 28 lagun da), ordutegia (21:00etan itxi behar da Gizarte Etxea)... Urrian, adibidez, **Con X the banjo** taldeak oso kontzertu polita eskaini zigun, eta izan genuen aukera bere azken abestiak entzuteko. Izan ere, Larraintzarren estreinatu zuten, lehenengo aldiz, horietako batzuk. Leku txikiek askotan abantaila edo pribilegio horiek dituzte, artistek aprobetxatzen dute bere azken lanak frogatzeko, edo beste leku batzuetan ezin duten sekretuak kontatzen dizkigute; Mikel Santos Belatzek komikigileak, esate baterako, **"Gerezi garaia"** aurkeztu zuen, Lucio Urtubiari buruzko nobela grafikoa, eta guk ikusteko, lanaren zirriborroak edo Lucio Urtubiak berak idatzitako testuak ekarri zituen.

Eta gainera Ana Galarren erakusketa, bisita gidatu batekin, Iñigo Cabezafuego ... ere izan ditugu.



Azaroako programazioa

Eta zer izango dugu azaroan, pandemiak uzten badigu?

Delia Izabel Hinstrozoa artistaren erakusketa izango da Gizarte Etxean **abenduaren 2ra arte**: "nireak bezain zureak izan litezkeen bizipenak", dio egileak bere lanaz.

Azaroaren 6an, aurtengo Euskaraldia aurkezteko eta bultzatzeko **"Txor Txor bakarrizketa Umoretsua"** eskainiko dute Beatriz Egizabalek, Xabier Artiedak eta Nerea Arrolak. Bakarrizketa sorta honek umoretik euskararen erabileran eragitea du helburu.

Hurrengo astean, **azaroaren 13an, dokumental bat, Penitencia, Pili Mujikarena**: Preso batzuen bizipenak kontatzen du film honek, boluntarioei eta adituei egindako elkarrizketen bitartez, sistema penalean zerbaitek ez duela funtzionatzen jakinarazteko.

Azaroaren 20an, kontzertu akustiko bat, Etna Maid taldearen eskutik.

Meryk eta Maryk osatzen dute izaera eta konplizitatea transmititzen duen bikote hau. Etna Maid Diamante da alderantziz irakurrita, eta horrelakoa da bere musika.

Bukatzeko, beste dokumental bat, **azaroaren 27an: Zauriak**, eromena, ezinegona eta osasun mentala ikuspegi feminista batetik ikusita, 9 emakumeren testigantza jasotzen ditu.

Beraz, programazioa aberatsa eta askotarikoa. Espero dezagun kulturarekin disfrutatuz jarraitzea eta kultura gure babeslekua eta gure argia izatea egoera zail eta ilun honetan.



Patxi Irurzun

Ultzamako liburuzaina



2020ko irailean

2020ko irailean gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

BASABURUA Gartzaron

Perkain Oltza Legarra, irailaren 19an jaio zen, **Martxonean**. Mikel eta Irantzuren semea.



▲ Perkain Martxoneko atarian

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak

BASABURUA Igoa

Mikel Apezetxe Santxotena, Erratzukoa, eta Josune Mariezkurrena Beuntza, **Langaetxekoa**, irailaren 26an ezkondu ziren.

BASABURUA Ihaben

Javier Osinaga Munarritz, Ihabengoa, eta Naroa Azpirotz Urritza, Igoakoa, irailaren 12an ezkondu ziren. Iruñean biziko dira.



▲ Javier eta Naroa

“ Mila zorion ezkonberriei ”

Heriotzak:

ANUE Olague

Pedro Senosiain Etxarri, irailaren 14an hil zen, 95 urtetan, **Etxezarreko** nagusia.



▲ Pedro Senosiain

BASABURUA Beruete

Micaela Eratsun Ripa, irailaren 14an hil zen, 89 urtetan. **Txaseneko** etxekoandrea.

“ Gure oroimenean izanen zarete ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2020-2021 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala		
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Musika	Soinugela
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Lur eta Murmur / Paperezko itsasoa	
14:30-15:30	Reggae Fever	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Bertsoinka	Beranduegi (Argia podcast)
15:30-16	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea		
18-19	Hiru Kortxea	Kultur kuboa	Gramofono	Piperpolis	Kolpez kolpe		
19-20		Musika	Musika	Musika			
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Bidasoa Attack	Berria FM/ Dunbala
21-22	Erro ta Berri	Zuria Beltzez	Mestibull	Pentsatu ez sinistu / Ithaka ukatuz	Haus of beats	Musika	Booktegi
22-07	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika

- ESAN ERRAN IRRATIA:** Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika
- ARROSA SAREKO IRRATIAK:** Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia
- EUSKADI IRRATIA**
- EUSKALERRIA IRRATIA:** Metropoli Forala
- BESTEAK....:** Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM